



## IRAKURRI ETA IDATZI LANBIDEA

*LINEAKO AGENTEA*

*MEKANIKOA*

*TRENGIDARIA*


Trenaren abiadura kontrolatzen du, seinaleak irakurtzen daki, arriskuren bat ote dagoen begiratzen du uneoro eta geltokietara gerturatzeko, frenoak aktibatzen ditu. Trenbidean espero gabeko zerbait agertzen bada ere, beti adi-adi joaten da. Tren gidari izateko entrenamenduetan ordenagailuko jokoak erabiltzen dira, ezustekoen aurrean erreakzio denbora hobetzeko. Iraganean, tren gidarien ardura izaten zen trenaren gurpilei koipea ematea ere.

Trenaren mantenu lanetaz arduratzen da. Trenak tailerrera iristen diren bakoitzean bertako mekanikoak trenaren funtzionamendua errepasatu behar izaten du. Antzina, egurrezko makila handi baten laguntzarekin trenaren gurpilak ondo ote zeuden jakiteko kolpe batzuk ematen zizkion. Ateratzen zuen soinuaren arabera jakiten zuen arazoren bat ote zegoen ala ez, eta hala bazen, gurpilak konpontzea ere bere ardura izaten zen.

Treanean goazenean, txartela miatzen duen pertsona da lineako agentea. Baina lan horretaz aparte, treneko bidaiarien segurtasuna bermatzea eta bidaiarien zalantzak edo informazio eskeak argitzea izaten dira bere ardura nagusiak.

LOTU DEFINIZIOA ARGAZKIAREKIN ETA URTEAREKIN  
IKUSI BIDEA INFORMAZIOA JASOTZEKO.





Lehenengo trena honelakoa izan zen.  
Merkantziak garraiatzeko sortu zuten  
Ingalaterran.

1912

Europa Iparraldean sortu zen.  
250 kilometro orduko abiadurara iritsi  
daiteke.

1879

Lehenengoa Berlinen sortu zen. Lokomotora  
eta hiru bagoik osatzen zuten trena eta  
bere gehienezko abiadura 13 km/h-koa zen.

1825